BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3228

129/2012 DEKRETUA, uztailaren 10ekoa, zeinen bidez urgentziako deklaratzen baita Bediako Udalak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Bizkaiko Bedian, oinezkoen lotura proiektua, Eroso-Ugarte eta Barroeta auzoen artean egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak.

Bediako Udalak 2011ko apirilaren 14ko osoko bilkuran erabaki zuen «Oinezkoen lotura proiektua Eroso-Ugarte eta Barroeta auzoen artean» onartzeko lege-izapideak hastea. Horrek berekin dakar onura publikoko aitorpena eta ondasunak okupatzeko beharra. Beranduago, Bediako Udalak 2012ko urtarrilaren 26an izan zen Osoko Bilkuran adostu zuen, nahitaezko desjabetze espedientea hastea; informazioa jendaurrean jartzeko izapidea egitea, jabetza kentzeko hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrendarekin; eta, Eusko Jaurlaritzari eskatzea proiektu horrek eragiten dien ondasun eta eskubideak premiaz hartzeko adieraztea, Jabetza Nahitaez Kentzeko Legeko 52. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak banakatuta eta zehaztuta agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, baita identifikazioak egiteko datu aski ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, administrazio-espedientean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luza ezinezkotzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Udalerriko mugikortasun arazoak konpondu beharra, bidegorri oinezko-ibilbidea eraikita, Eroso-Ugarte eta Barroeta auzoak lotzen dituen errepidearen ondoan. Errepide horrek gaur egun ez du espaloirik ezta bazterbiderik ere ia ibilbide osoan. Gainera, bidegorri-ibilbide horrekin lortuko da, inguruko airearen kalitatea hobetzea, bai eta berotegi-efektuko gasen isurketa murriztea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio: nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzea, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari zegokion aurkeztea horretarako proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela bide, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertuta, 2012ko uztailaren 10ean egindako bilkuran, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, oinezkoen lotura proiektua, Eroso-Ugarte eta Barroeta auzoen artean egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Bediako Udalak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzea. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, lehenik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko uztailaren 10ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.